

EHUren GIZARTE KONTSEILUAREN OSOKO BILKURA

BI MILA ETA ZORTZIKO UZTAILAREN 17AN OSPATUTAKO EHUN ETA HOGETA HEMERETZIGARREN SAIOA

UPV/EHUK EZAGUTZAREN ESKURAPENEAN ETA IKERKETAREN EMAITZAK
SORTZEAN GARATU GEHAR DUEN ROLAREN ANALISIA.

“Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari Gizarte Kontseiluaren Estrategia Planeko 2008ko Plan Eraginkorrak zehaztutako proiektuez gain beste bat elkarlanean egitea proposatzea, UPV/EHUK ezagutzak eta ikerketen emaitzak lortzean daukan paperaren proposamen bat egiteko, honekin batera doan baldintzen agiriaren arabera.”.

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA EZAGUTZAK ETA IKERKETEN EMAITZAK SORTZEAN UPV/EHUK DAUKAN PAPERAREN PROPOSAMEN BAT EGITEKO

1.- KONTRATUAREN HELBURUA ETA METO-DOLOGIA

Badaude EHUren, Teknologia Zentroen, BERC-en, CIC-en, enpresen, Herri Administrazioen eta bestelako erakundeen arteko elkarlan-harremanak, erakunde bakoitzaren beharrianak betetzeko norberaren gaitasunak aprobetxatzeko asmoz.

Ezagutzak sortu eta haiek aplikatzean bakoitzak zein paper edudki behar duen zehaztea ez da erraza –beharrian espezifikak bete behar direlako-, ebaluatzeko moduko onurak sortuko badira.

Honako hau egitea proposatzen da:

- a) Ezagutza sortzearen eta haien aplikazioaren karakterizazio teoriko eta kontzeptuala.

Teorikoki, Unibertsitateak ezagutzak sortzen ditu ondoren Teknologia Zentroek enpresen arazo espezifikoak aplikatu diezazkieten. Ezagutzen sortzearen eta haien aplikazioaren karakterizazioak lagundu egin behar du kontzeptuak mugatzen eta parte hartzen duten guztientzako hizkuntza komun bat sortzen, elkar-ulrtzea errazte aldera eta eztabaida antzuak saihesteko.

- b) Gaur egungo egoeraren analisia.

Gaur egungo egoeraren analisia benetako kasuen gainean egin behar da, non elkarlanean aritzen diren Unibertsitatea, Teknologia Zentroak, BERC-k, CIC-k eta enpresak (pribatuak, publikoak, Herri Administrazioak, gizarte erakundeak, etab.); bi eragile baldin badira, haietako bat Unibertsitatea izango da, eta hiruren artean.

Elkarlanak hainbat itxura hartzen ditu: unibertsitate-enpresa ikasgelak, unibertsitate-enpresa kontratuak, unibertsitate-enpresa elkarlaneko ikerketak, unibertsitate eta Teknologia Zentroen arteko kontratuak, etab.

Gutxienez elkarlaneko hiru kasu konkretu analizatuko dira (formula desberdin banarekin) hurrengo herrialdeen aldetik: AEB, Ingalaterra, Alemania, Frantzia eta Espainia; EHUri dagokionez, ezagutza-eremu bakoitzeko (EHUK zehaztu dituen artean) gutxienez hiru elkarlaneko kasu aukeratuko dira. Hurrengo atalak izan behar dituen analisi bat egingo da:

- Elkarlanen ezaugarriak helburuei, iraupenari, partaideei, finantzazio-formulei, jarraipen-sistemari eta emaitzen ebaluazioari dagokienez, eta hala bada kostu eta mozkinen dagokienez ere.

Gizarte Kontseilua - Consejo Social

- Ezagutza berrien sortzearen ebaluazioa.
- Elkarlanaren emaitzen aplikagarri-tasunaren ebaluazioa.

c) Gomendioen proposamen bat.

Elkarlaneko kasuen karakterizazio kontzeptuala eta analisisa hurrengo puntuen gaineko gomendioen proposamen bat egiteko:

- Zein paper izan behar duten unibertsitateak, teknologia zentroek edo bitarteko erakundeek, enpresek eta bestelako azkeneko hartzaileek.
- Parte hartzen duten erakundeetako eta diziplina desberdinetako ikertzaileen parte hartzea bultzatzen duten elkarlanerako formulak.
- Elkarlan hitzarmenak erraztuko dituzten zehazpenak eta estandarrak.

2.- PROPOSAMENAREN XEHETASUNAK

Eskaintzak honako atal hauek esplizituki adierazi behar ditu:

- Proposamenaren deskribapena.
- Egin beharreko lanaren mugarri garrantzitsuenak.
- Lanak egingo dituen taldearen curriculum.
- Lan egitasmoa.
- Erabili beharreko metodologia.
- Lan-taldeko partaide bakoitzak egindako lanak.

3.- LANEN ANTOLAKUNTZA

Lanak enpresa esleipenduneko langileek egingo dituzte, Gizarte Kontseiluaren gainbegiratzearen pean.

Batzorde batek, alderdi kontratatzaile bakoitzaren bina ordezkari gehienez osatutakoak berak, kontratuaren helburu diren zereginak gainbegiratuko ditu.

4.- LANAK EGITEKO EPEALDIA

Lanak egiteko epealdia 3 hilabetekoa izango da.

5.- AURREKONTUA

Kontratuaren aurrekontua 60.000 eurokoa izango da, BEZa barne.

Gizarte Kontseilua - Consejo Social

6.- ESLEIPEN PROZEDURA

Esleipena Publizitaterik gabeko prozedura Negoziatuaren bidez egingo da, gutxienez hiru eskaintza direlarik.

7.- KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa aukeratuko den proposamen ekonomikoaren nahiz Gizarte Kontseiluaren dagokion esleipenaren ondorioa izango da.

Eskaintzaileek eskainitako prezioek, haien egitura edozein delarik ere, honako hauek barne izan behar dituzte derrigorrez: lanetan eragina izango duten kostuak oro, zuzenak nahiz zeharkakoak, zerbitzuko langileen edo haiei lagunduko dietenen ordainsaria, langileen Gizarte Segurantzaren eta gizarte-kargak, edozein zerga-esparrutako zergak nahiz arielak, BEZa barne, baita industria-etekina bera ere; ondorioz, esleipendunak ezin izango du atal horietako bat ere eskatu eskainia izan den eta UPV / EHUKo Gizarte Kontseiluak onartu duen preziotik kanpo

Esleipendunak aipatutako prezioei eutsi egingo die kontratuak dirauen epealdi guztian zehar.

8.- PREZIOAREN ORDAINKETA

Lanak ordainduak izango dira eskainitako zenbatekoa daukan faktura aurkeztu ondoren aurkeztutako lana behin onartuta.

9.- LANAREN JABETZA

Gizarte kontseilua izango da honako kontratu honen helburu den egindako lanaren jabe eksklusiboa, haren alderditako edozeinetan.

10.- BALDINTZA TEKNIKOEN GUTUNA-ZALEAN SARTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskaintzaileek aurkeztu beharreko Baldintza Teknikoen gutunazalak honako atal hauek barne izan behar ditu derrigorrez:

- Proposamenaren definitzea
- Egindako lanak.
- Lan egitasmoa.
- Lanari ekingo dion talde tekniko eta profesionalaren osaketa.

Gizarte Kontseilua - Consejo Social

12.- ESLEIPEN IRIZPIDEAK

Ondoren adierazten dira jasotako proposamenak balioesteko irizpideak eta haiek pisu ponderatuen balioa:

1. Helburuak	%25
2. Metodologia	%25
3. Kronograma	%25
4. Prezioa	%25 .".